

Bera eta Lesakako liburuzainen lanpostuak betetzeko deialdiaren aurkako sinadura bilketa

Berriki Nafarroako Gobernuak hainbat liburutegi publikotako arduradunen lanpostuak betetzeko deialdia egin du, oposizio bidez. Tartean dira Bera eta Lesakako liburutegietako arduradun lanpostuak. Deialdi horren arabera, euskaraz jakitea ez da meritua gisa baloratuko ere; izan ere, oposizio bitartez beteko dira lanpostuak, lehiaketaldirik gabe. Erabaki horren aurka hainbat helegite jarri dira. Horrez gain, bi herrietako euskara batzordeek herritarren nahiz liburutegietako erabiltzaileen aldetik erantzun bat eman beharra azpimarratu dute eta deialdiaren aurkako sinadura bilketa antolatu dute. Nafarroako Gobernuari eskatuko zaio lanpostu horietan aritzeko euskararen ezagutza derrigorrezkoa izan dadila, eta Nafarroako Arartekoari, berriz, legeak aitortzen dituen hizkuntz eskubideak babes ditzala. Sinatu nahi duenak bi herri horietako liburutegi publikoetara joan behar du, astelehenetik ortziralera, arratsaldean, eta hilaren 28a baino lehen.